



Gaur egun, mundu osoko armadek erabiltzen dituzte mina eta submunizioak eguneroko ihardunean, defentsarako zein erasorako. Urtetik urtera indarra hartuz joan den alorra da suntsipen masiboa eragiten duten armen produkzioa, eta azken bolada honetan nagusi bilakatu dela nabarmen azaldu da. Hortaz, armagintza-sektorean diharduten enpresek horri eman diote lehentasuna, eta negozio erraza eta biribila gertatu zaiela esaten badugu, ez gabiltza oso oker. Izan ere, iritzi publikoaren haserrea arma nuklearren kontra bideratuta egon den bitartean, berau bezain arriskutsua den alorra sortu dute paraleloki.

"FOB Karachi minak kalte personalak eragiteko helbura dauka. Ikerketek baieztatzen digutenez, etsaia zauritzea hiltzea baino eraginkorragoa da. Zaurituriko soldaduak arreta handiak behar ditu eta horrek oztopoak sortzen ditu garraibide-eta osasun-zerbitzuetan. Horrez gain, zaurituek min psikologiko handiagoa sortzen diote Armadari".
Pakistango Armagintza Enpresa.

Arriskua lurpean

Pili Kaltzada*

Minek 800 lagun hiltzen dituzte hilero-hilero, gerra aspaldi bukatu bazen ere. Armadak erretiratu ostean, lurpean utzitako minak ereindakoan bezain arriskutsuak dira; edo arriskutsuago. "Bakean" bizi omen diren lurraldeetan 200 mila milioi mina omen dago, banan-banan eztanda egiteko zain.

Hiztegiak dioenez, mina lurpeko edo urpeko lehegailua da, urrutitik lehertaraz daitekeena edota norbaitek edo zerbaitek zanpatzean eztanda egiten duena. Militarki aztertuz gero, bestalde, askoz zabalagoa azaltzen zaigu minaren adiera; EEBBetako Defentsa Batzorde Gorenak dioenez, edozein gatazka beliko zein gerra amaitu ostean indargabetu gabe geratzen den munizio-mota oro jo behar da minatzat. Honen arabera, hortaz, minen ezaugarri beretsuak dituen submunizioa ere suntsipen masiborako arma gisa hartzen da. Mina terminoaren jatorria, antzina-antzinatik ezagutzen den taktika batetik datorkigu. Etsaiaren harrusietara iristeko, lurpean egin-

Populazio zibila dago minen arriskupean.



dako galerietatik urreratzen ziren soldaduak. Bolbora erabiltzen hasi zirenez geroztik, berriz, galeria horien bukaera aldean leherkaria jartzen zuten, harresietara hurbildu ezezik, eraso ere egiteko.

Lehen Mundu Gerran Alemania-ko armadak erabili zuen estraine-koz gaur egungo minaren aitzindaritzat jo daitekeen arma. Fun-tsean, eskuz erabiltzen zituzten granaden ezaugarrietan errepara-tu zuten, eta hortik sortu, oster-a, berau baino indartsuagoa izango zen arma. Granadaren espoleta gorantz jarri eta lurpean ezarri zuten. Tankeak gainetik pasa eta zanpatzean eztanda egi-tea zuen helburu, eta, jakina, bete-betea asmatu zuten.

Bigarren Mundu Gerran erabili-tako minek burdinazko gorputza zeukaten, jatorrizko granadaren antzera. 1942. urtetik aurrera, berriz, beira, bakelita edo zurez-




Barreiaketa-bomba bat.

koak ditugu nagusiki, detektore elektromagnetikoak saihestea-rran. Urpean edo lurpean ezarri-ta, minak ezandarazteko sistema antzekoa da kasu guztietan. Uki-tu txiki batek eragiten du leher-keta mina sinpleenetan, baina ba-da urrundik eztanda eragiten duen mekanismorik ere. Azken hauek itsas minak lehertarazteko erabiltzen dira nagusiki.

"Minek errefuxiatuak itzultzeko arazoak sortzen dituzte. Gara-pen ekonomikoa baldintzatu, etengabeko kaosa sortu eta ore-ka politikoa berreskuratzea ezi-nezkoa egiten dute."
EEBBetako Estatu Batzordea.
"Itzalpeko Hiltzaileak" izeneko txostena.

Minen jatorrizko helburua tankei erasotzea izan bazen ere, Bigarren Mundu Gerraz geroztik soldaduen kontrakoak ugaltzen hasi ziren. Gaur egun bi helburuak nahasten dira, eta, beraz, mina-eremuak mistoak dira ia kasu guztietan.

Submunizioen artean barreiake-ta-bonbak dira aipagarrienak. Airean lehertzen dira eta inguruetan dozenaka bomba barreia-





tzen dituzte; segidan lehertarazten direnak edo mina moduan lo irauten dutenak.

Benetako arriskua agerian

Mina eta submunizioen garrantzia suntsipen masiboa eragiteko duten gaitasunean datza. Izan ere, airetik jaurti edo lurpean ezarrita, gatazka belkoak baino

ren ironietako bat: gatazka amaituta ere, gerra-egoeran segitzen baitute biztanleek, normaltasuna berreskuratu ezinik.

Guzti honez gain, izugarri merkea da mina eta submunizioak erabiltzea. 3 dolarren truk eskura daiteke mina bat, berau indargabetzeak ia 1.000 dolarreko kostua duen bitartean.

Zibilak dira minen biktima nagusiak. *Greenpeace* erakundeak

Armagintzaren besoak Euskal Herrian

Gaur egun mundu osoko mina eta submunizioen produkzioa 50 bat enpresa edo talderen esku dago; EEBB-etako Alliant Techsystems, Italiako Valsella Meccanotecnica (FIAT-en menpekoa) edo Txileko Cardoen dira horietariko batzuk.

Euskal Herrira etorrita, EXPAL (Explosivos Alaveses S.A.) enpresak bere kontrolpean dauka Estatu Espainiar osoko mina eta submunizioen produkzioaren zatirik handiena. ERCROS taldearen menpe dago, eta, beraz, KIO kuwaitarrarekin estu lotuta. Gasteizen sortu zen 1946.ean eta 1960.eko hamarkadan izan omen zuen bere garairik onena. Hala eta guztiz ere, gaur egungoak ez ei dira sobera txarrak; urteko fakturazioa 10-12.000 milioi pezetakoa izaten baitu. Gasteizen egindako minen bidea zein den zehatz jakiterik ez dago, subkontratuen bitartez burutzen baitira operazio ekonomikoak. Zehatz jakin ahal izan dugun gauza bakarra hau da: estatu espainiarreko armada dela EXPAL-en bezerorik "zintzoena".

de sembra de este vehículo desde helicóptero i de detonador al remoto i de interdicción ma para la logística, regulación y el uso de explosivos en operaciones militares

VALSELLA
MECCANOTECNICA
25074 CASTELLÓN (PROVINCIA) ESPAÑA
TEL. 0682730621 - FAX 306495 (S.M.A.T.I.)

VS 2.2 a1
VS 1.6 a1
VS-HCT a1
VS-MK2 a/p
VS 1.6 a1

electrónica para etapas al viento

Valsella arma-fabrikatzailearen mina-iragarkia.

hildako eta zauritu gehiago eragiten dute. Kontutan hartzekoa da, bestalde, iraunkortasunak ematen diela arma hauei duten balio estrategikoa: lurralde batean ereinez gero, mina baten batezbesteko iraupena 40 urtekoa da. Hortik dator, hain zuzen, gerra-

dioenez, 800 lagun hiltzen dira hilero-hilero edozein gerra ostetan soro eta bideetan utzitako minek eztanda eginda. Gaur egun, 200 milioi mina baino gehiago dago munduan zehar barreiatuak, banan-banan eztanda egiteko zain. Kanboian, esaterako, minek hiru bake-urtetan hogeitaz gerra-urtetan baino zibil gehiago hil dituzte.

Etorkizunari begiratuz gero, bestalde, ondorio ekonomikoak dira larrienak: lur oparoak ezin landu, azpiegitura hondatuak, kanpo-laguntzaren menpekotasuna... eta abar luze bat. Esaterako,

Afganistan behar zituen elikagai guztiak ekoizteko gauza zen gerra aurretik. Egun ordea, janari-inportazioaren menpe dago. Kanboia, Nikaragua, Vietnam edo Angolan gerra aspaldi amaitu zela ahaztu egingo dute agian, baina ondorioak luzaro pairatu beharko dituzte.

* ZETIAZ-Eihuyar

